

## BIBAT museoak X. urteurrena ospatuko du, 10 urteko ibilbidea gogoratuz

Arkeologia eta Fournier Karta Museoak hitzaldiak, bisitak eta lantegiak antolatu ditu martxoaren 26aren inguruan, egun horretan jaio baitzen proiektua

**Gasteiz, 2019ko martxoaren 15a.** Arabako BIBAT Arkeologia eta Fournier Karta Museoak hamargarren urteurrena ospatuko du hil honetan, martxoan. Hori aitzakiatzat hartuta, bi museo horien hamar urteko ibilbidea hizpide hartuko dute antolatuko diren hitzaldi, bisita, lantegi eta kontzertuek.

“Pixkanaka, BIBAT museoa turismoko erreferente handietako bat bihurtu da Araban; duen kokapen estrategikoak —Aiztogile kalearen erdi-erdian dago—, erakusketa ezin interesgarriagoek eta parez pare egiten dituzten jarduera aberatsek lurraldeko baliabide aberasgarrienetako bat bihurtu dute”, adierazi du Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak. “Eskaintza askotariko horrek izan du emaitzarik: 32.865 bisitari jaso zituen 2015an, eta 60.000 bisitari izateko ate-ateetan geratu da 2018an; aldundiaren baliabide turistikoen artean, Artium museoa, Gatz Harana eta Santa Maria Katedrala baino ez ditu aurretik”.

X. urteurreneko jardueren programak martxoaren 26a izango du ardatz, hain zuzen ere egun horretan baita urteurren ofiziala, eta hitzaldia emango du Joan Santacanak, non XXI. mendeko museoetarako museografietan sakonduko baita. Ramiro González diputatu nagusia ere izango da hitzaldi horretan eta, horrez gain, ‘10 urte BIBATen’ izeneko bideoa emango da, Risi disko jartzailearen musika lagun, eta Arabako Paleolitoari buruzko ‘Jatorria’ erakusketa ofizialki irekiko da, zeina gaur goizean bertan aurkeztuko baita museoan.

Baina ez da hori izango erakusketa gunea omentzeko jardunaldi bakarra. Hilaren 20an, ‘Dordonizko harria’ri buruz hitzaldia emango dute María Luz Mangado egiptologoak eta Ainhoa Escudero ikertzaileak, eta hilaren 28an, museoaren irudi modernoaren arduradun Patxi Mangado arkitektoak proiektu horren xehetasunak azalduko dizkio jendeari.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Prensa Oharra Nota de Prensa

Ospakizunari martxoko azken asteburuan emango zaio amaiera. Lantegiak izango dira haurrentzat, eta ibilbide bat egingo da Bendañako istorioak ezagutzeko, larunbatean, eta lantegi gehiago eta B3 Dixieland taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da igandean.